

Frantzi, Alemani ta Luxenburgoko tartian, injenieri lan arrigarria

Ontziak ibiltzeko Mosela ibaya bear bezela gertu eta ubidetu dute

170 metroko luzeran, 13 eskulasa, egin dituzte

Egun abetan Frantzi, Alemani eta Luxenburgoko agintari nagusiak bildu dira egin duten injenieri lan bikain asiera emateko. Mosela ibayaren ur goi aldean, Europa sustraiyaren erdian, aunditasun guziarekin asiera eman diote, *ubidetu*—kanalizatu— dituzten urai. Benetan injenieri lan pizkorra, eta oraindik askoz aundiagoa dana, Europa erdiko lanbide eta bide irikitzea.

Frantzi'ko Lorena lurretatik jaxten da Mosela ibaya, Alemani'ko Palatin alderdiatara, Luxenburgoko baso ertz eta mugetatik zear, Europa'ko lur zati ederrenetatik bidea irikitzen duelarik. Bere egal maldaetan maazti gozok eta zelai orlegi-berdeetan igali ederrak dira.

Izango dira iya bi milla urte, Mosela'ko uren bidez, Galia eta Treberis'tik Koblenz'ara, Alemani'ko Rin ibai aundiaren bilerara, erromatar gudari edo lejiyoai jaki ta tresnak ekartzien zietela, Renania lurraldeetan atsedean zudenai.

Luebke, Jermeni'ko lendakariak jai abetako bere itzaldi batean, gogoratzen zuan Decimus Magnus Ausonius, aromatar —baita Bordeaux eta Treberis'ko biztanlea— olerkariak, orain dala milla ta seireun urte bere inportantzi edo garrantziya eman ziyola ibai-bide aberi; au da, Mosela ibai-bideak, goratu zituela bertso eder sofularietan —gaur gure Basarri edo Uztapide aundiak egingo luteken eran—, olerki mamitsuetan abestuz, galera edo treneru ibai-ontzi arraukarietan jai begitsu bezela emanaz.

Ez da bada gaurko asmakizuna, Mosela ubidetu edo kanalizatzea, bertan ibai-ontziak txirristaka ibiltzeko. Berez, 1880 garren urtean asi ziran pentzatzen lan aundi au egin bear zala. Gero, 1930 garrenean, Alemani'k ausnartu zuan bear bezela *auto-lan* indartsu onetan, eta baita ere ekin sayoari, Koblenzta aldean 1941 garren urtean. Azkeneko gudaketa erdiraño jarraitu zuten alemanak, eta berriro arnaza artu zuten zaipi urte geroago 1948' garren urtean; iru urte geroago zearo utzi ziran lan egoki auk.

Orduan, Frantzi asi zan ekifian eta mugitzen, Bearrezkoa bai zun urbide egoki bat Lorena'ko ola tresnak Rin ibai aundian ipini, eta beraren bidez, Ipar (norte) Itxasoaren kai aundiaren jartzeko. Bestetik, Sarre lurraldeak Alemani'k bereganatzean, bayezkoa emanen zuan Alemani eta Frantzi artean Mosela'ren urbidetu edo kanalizatzea. Onela, 1956 garren azken aldera, Frantzi, Luxenburgoko eta Alemani'k erabaki aundi bat artu zu-

ten. Iruren artean injenieri lan bikain eta eder au egiteko eta urtearen egun guzietan urontziak ibiltzeko; milla ta bosteun toneladako ontziak, Rin ibayan, Koblenzta eta Thionville alderdian ibiltzen diran kidekoak bezelaxe.


irueroi ta amar metro luzeran, eta amabi metro zabaleran dituztela. Ugasi edo eskulasa aundi aben magalean zama-ontzi aundiyeentzat eginak, ugasi txikiagoak egin dira jolas-ontzi, txalupa eta arrai entzat... —Urumea,

tziak, lendabizi, 1,68 metro azpiarekin —kaldarekin— asi ziran, batere miñik edo arramazkarik artu gabe. Geroago bi metroko azpi zituzten ontziak jarraitu zuten, eta emendik aurrera, bi metro ta erdi azpi dituzten ontziak, ibilliko dira bere zamak bizkarran dituztela atzera eta aurrera Mosela ibayean.

Jakiña injenieri lan izugarri onetan, dirutza izugarrikoak zakabanatu dirala, Alemani, Frantzi eta Luxenburgoko Gobiernoak *txanponak* aurreratu dituzte, eta orain berriro beren kutxetara etorri bear dira. *Oin-sari* edo peajea —Irun eta Endaya'ko zubian len egiten zan bezela— onela izango da. Zamak, lautik amairu peseta bitartean, tonelada eta kilometro bakoitzetik ordainduko dituzte, zein garrantziko zama izan jkikiñal ikatzarena merkeago automobillena baño...

Dirutza asko kostatzen arren oin-sari edo peajea, askotaz merkeago da zama urontzietan eramatea, burnibide edo kamiyoetan baño. Lorena'ko industrial eta baserritarrak beren tresna eta igaliak, eunetik 20 eta 40 merkeago aterako zaye.

Au da ba, aurreko egun abetan De Gaulle, Luebke eta Luxenburgoko Dukesa Aundiak irasi edo inauratu duten Mosela ibayaren goiko uren ubide edo kanalizatzea, Frantzi'ko ontzi batean juan ziran iru agintari nagusiak, eta De Gaulle'k Apach'en lendabiziko ugasi edo eskulasa iriki zuan Frantzi'ko azken mugan. Bereala, Luxenburgoko Dukesa Aundiak bere lurrak buztizien dituan ugasia, Azkenek, Luebke'k urdubete geroago, Teves'ko ugasia iriki zuan, berak zijuatzen urontzian igarorik. Orrela bada, iru errietako agintari nagusiak —eta laguntzaleak— ontziaren ordu batzuek egin dituzte, beren erriak mugatzen —edo batzendentuzten Mosela ibayaren urtan.



Guzira 270 kilometro ibai-bide. Alemani lurraldian 242 kilometro; Luxenburgoko ertzetan eta 28 kilometro Frantzi lurralde eta Frantzi-Luxenburgoko mugetan.

Egun abetan jaitu diran Mosela'ren ubideak, *ur malla* (escalera likuida gaztelaraz esango genuke) egin dute ibai langille au. Eun metroko tanga edo desinibela Koblenzta eta Thionville bitartean, amairu ugasi edo eskulasa bikainak egin dituzte, bakoitza eun eta

Oria eta Ibaizabal ibaiko ur pozoidunetan bezelatsu!—. Geroago, bost kai egitekoak dira ontzi, zama eta txalupak bear bezela gorde eta egoteko.

Berez, Mosela ibaya, aurtengo Ilbeltza'tik, gertu zegan urontziak bertan atzera-aurrera ibiltzeko. 500 toneladako ikatz pixuarekin betetako Frantzi eta Alemani'ko urontziak, probetan ibilli dira Koblenzta eta Thionville bitartean, batere arraztorik izan gabe. On-

ARRATIBEL

NAZIO-ARTEKO UNEA

Palestina ta Israel

Kristautzat lur santuak diranak izen aukin ezagutzen dira. Arabetarrentzat Palestina da ta judutarrentzat Israel.

1948'gn U.N.O.'k Israelen askatasuna erabaki zuanean, bereala guda bat sortu zan judutarren artean eta arabetarren artean. Guda ortatik ondoan atera zana Israel izan zan. Orregatik, lenagotik Israel'en bizi ziran arabetarrek iges egin zuten eun millaka. Otietaik geienak, oraingo Jordanian bizi dira, "refujiatu" prolema izugarria sortu eraziz.

Prolema au da arabetar eta judutarren artean dagoan gogorrera. Israel'tik iges egin zuten arabetarrek, berak deitzen dioten Palestina ortara berriro joateko eskubidea eskatzen dute. Ta bere asmoa erabaki ta egi biurteko, naz eta Jordanian bizi izan, estadu bat bezela antolatu daude, arabetar estadu guzitzen laguntzarekin. Ta badirudi urmetan asteko asmoa daukatena.

Orain egun gutxi izan dute Palestina'ko arabetarrek euren batzarra, euren kongresua. Batzar ortan Palestina eurentzat askatzeko antolaketa bat sortu dute.

Zer diote gai orrietaz judutarrek? Auen iritzian oso kaltegarria litzake arabetar oiek berriro Israel'era bueltatzera. Zergatik? batez ere gorrot bizi-bizian azi diralako. Ta gaitiera oiek Israel'go estadura berriro etorri ezkeren Israel'en seguridadea bat-batean gotitik behera eroriko litzakelako. Izan ere Israel'go erriaren eta agintzarien, arabetar estaduetako agintariak ez dute batere gogorik eta asmorik "refugiatu" prolema konpontzeko. Auek nai dutena da prolema orrekien, demagogia eginiaz, politikan jokatu.

Eguzki-aldeko urbilleko gora-bera gogorak konpontzeko bear-bearrezkoa da judutarren eta arabetarren arteko burruka ta asarrea konpontzea. Bai, danak konpondu nai dusela diote, baiñan zenbatak nai ote dute konpondu?

Badira okzidenteko nazioen artean judutarren alde gustora azalduko lirakena, bañan arabetarrek asko ta indartsuak dira ta batez ere... aberatsak, petroleoa daukate ugari ta.

ARREGI'tar RIKARDO'k

AURRERA I. A.

EIBAR - Galdazaleak, 1 - 96' garren Gutun-kutxa - Urrutizkiña, 7-35-42.

TUPIKI (hierro colado) bikalifetako, abiada aundiko lanetarako aukerakoa.

TXIMIST - INDAIDUN LABEAK. Ameriketako bera-galak galdatu (funditu) ta suberotzen dira. Galdagintza (fundizio) onen lana, ez erabilik jaten du, ez bustiak erdoitzen, ez be-roak gaitzen.

SHELL MUOLDING. - Neurri-neurriko makiña - zatikak sortzeko galdagintza; perdoi txikiena ta barru-azaleko itxurarik ederreneko egiturak.

MAKINA-LANIK BIKAINETAKO LAN-GELAK Sail aundieta eta zati txikieta oso aituak.

Zuzenbidea, onela jarri ordezaz;
AURRERA, S. A.
EIBAR - Fundidores, 1 Apartado, 96 1 Telef 7-35-52.

Ale
bakarra
2,50
Pezta

"GARATE, MENDIBE Y CIA"
"EIBAR"
«Eiza'rako»
«G. B.»
«Kartutxo onena»
«Zeure dendaria'ri eskatu»